


Mikel Zarrabeitia

• ONCEKO TXIRRINDULARIA •

■ ■ ■ Mikel Zarrabeitia da, ziurrenik, Itzulira sasoikoen iritsiko den euskal txirrindularia. ■ ■ ■ Joan den asteburuan, seigarren postuan amaitu zuen Nazioarteko Kriteriuma

«Itzulia irabaztea da nire ametsa»



EDURNE KOCH

■ Euskal txirrindularien artean zu omen zara sasoikoen dagoena.

Egia da Nazioarteko Kriteriumean postu ona egin dudala, eta ongi aurkitu dut nire burua, baina uste dut oraindik lasterketa gutxi korritu ditudala sasoi betean nagoela esateko. Alde horretatik, agian justu samar iritsiko naiz Itzulira.

■ ONCE taldeko liderra Jalabert izango da, eta beretzat egin beharko duzu lan.

Laurent da taldeko liderra eta bera da, gainera, ongien dabilena. Txirrindulari irabazlea da, eta guk, aldiz, gauza asko behar ditugu alde zerbait lortzeko. Normala da beretzat lan egin behar izatea. Gero, aukerak probe-

txatu egin behar dira, iaz Itzuli egin zuen bezala. Hala ere, uste dut badela garaia Laurentek Itzulia irabazteko, aspalditik baitabil hor, lehen postuetan.

■ Jalabert faborito da aurtun ere, baina gizon gehiago izan dira fin aritu direnak lehen hilabete hauetan.

Nik uste dut Davide Rebellin, Marco Pantani eta Michael Boogerd onenen artean izango direla. Oso ongi ikusi ditut orain arte. Gero, Kelmeko Botero eta Pascual aurrean izango dira.

■ Ibilbidea betiko tankerakoa da. Zeini egiten dio mesede gehien?

Laurententzat oso aproposa da. Baita Rebellin eta Boogerdentzat ere; Pantaniri gainera amaitzen den etapa bat falta zaio. Hala ere, uste dut, urtero bezala, azken erlojupekoan erabakiko dela irabazlea, nahiz eta iazkoa baino laburragoa den.

■ ONCE taldearentzat beti da zita garrantzitsua Itzulia.

Aurtun lasaiago hasi gara, baina uste dut sasoi onean iritsiko garela, Manolok beti garrantzi handia ematen baitio.


■ Zerekin izango zinateke konforme?

Laurentek irabazten badu, guztiok pozik, baina pertsonalki, beti izan da nire ametsa Euskal Herriko Itzulia irabaztea.

Euskal Herriko Itzuliko etapak eta


1 Tolosa-Tolosa (115 km)

Etapa



2 Tolosa-Zalla (204 km)

Etapa



MAROTIAS

Txindoki Industrialdea, 1
(Toyota Goierr-ren ondoan)

ORDIZIA - Gipuzkoa

TXIRRINDUAK

☎ / Faxes: 943 16 16 27



ERROTA
OPIL - OKINDEGIA
OKINDEGI ARTISAUUA

ERRIBERA, 2
SANTIO AUZOA, 36. PABILIOIA

☎ 943 14 30 01
☎ 943 86 00 00

IRAGARKIAK
☎ 943 300 222

TEKNOLOGIARIK BERRIENA ZURE ESKU

HEG ALDE AUTO

- KONPONKETAK OROKORREAN.
- IBILGAILUEN SALMENTA.
- GARBIKETA-ZUBIA.

ZERBITZU OFIZIALA



PEUGEOT

Hemen



Bertan

teknologia aurreratuena

zure esku

Legazpiko Industrialdea, 40.

Tfnoa.-Faxes: 943 73 41 49



Z e r b i t z u a

Mugitegi, 17 Pol. ☎ 943 72 51 37 - URRETXU